

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### BARRUNDIAKO UDALA

#### **2019ko Zaborra biltzen duen zerbitzu publikoarengatik tasa ordaindu behar dutenen errolda jendaurrean jartzea eta zergabiltzetarako aldia**

Zaborra biltzen duen zerbitzu publikoarengatik tasaren errolda, 2019koa, egin denez gero, jendaurrean jartzen da, interesdunek egoki deritzeten erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten. Horretarako, hamabost egun baliodun izango dituzte iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Interesdunek aipatutakoaren gaineko dokumentazioa udal idazkaritzan izango dute eskuragarri, jendea hartzeko orduetan.

Era berean, zerga ondoko epeetan kobratuko dela iragartzen da:

A) Araututako epea: 2019ko urriaren 1etik 2019ko abenduaren 1era.

B) Betearazpen epea: 2019ko abenduaren 3tik aurrera betearazpen epeari emango zaio hasiera, eta betearazte errekaruak, premiamendu urrituzkoak eta ohiko premiamenduzkoak ordaindu beharko dira Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak adierazitako epeetan.

Ozaeta, 2019ko uztailaren 26a

*Alkatea*

**IGOR MEDINA ISASA**